## J BERRIKUSI

**20** Prentsaurrekoa egin ondoren, Alberto eta Maite prentsaurrekoari buruz hitz egiten ari dira.

Osatu elkarrizketa, aukera egokia aukeratuz.

**Maite:** Ondo atera da prentsaurrekoa, ezta?
**Alberto:** Bai, oso ondo atera da.
**Maite:** Etorri diren hainbat (1) ___ ezagutzen nituen, baina beste (2) ___ ez.
**Alberto:** Bai, medio (3) ___ kazetariak etorri dira.
**Maite:** Telebista ere etorri da.
**Alberto:** Noiz emango dute berria?
**Maite:** Gaur eguerdiko eta gaueko saioetan emango dutela esan dute.
**Alberto:** Bi (4) ___ (avance) bidali ditugu telebistan jartzeko, eta (5) ___ jarriko dituztela esan dute. Ez da egon galdera (6) ___, ezta?
**Maite:** Ez, dena normal joan da. (7) ___, estreinaldiaren atzerapena (8) ___, ez dute ezer berezirik galdetu.
**Alberto:** Ez. Horrelako proiektu batean, atzerapenak normalak izaten dira.
**Maite:** Ondo etorri da atzerapena, (9) ___, filmak ikusmina (expectativa) (10) ___; eta, bestetik, Gabonetan zinema-aretoetan (11) ___ .
**Alberto:** Bai. Pozik egoteko moduan gaude, azkenean, dena oso ondo (12) ___ .
**Maite:** Bai, egia da.

| | |
|---|---|
| 1.<br>a. kazetari<br>b. kazetariak<br>c. kazetaria | 2.<br>a. zenbaiti<br>b. zenbaitek<br>c. zenbait |
| 3.<br>a. askotako<br>b. askoetakoak<br>c. askoetako | 4.<br>a. aurrerakinak<br>b. aurrerakin<br>c. aurrerakinek |
| 5.<br>a. biak<br>b. biek<br>c. bi | 6.<br>a. korapilatsua<br>b. korapilatsuak<br>c. korapilatsurik |
| 7.<br>a. hasteko<br>b. gainera<br>c. bukatzeko | 8.<br>a. delako<br>b. izateagatik<br>c. dela eta |
| 9.<br>a. alde batetik<br>b. ondoren<br>c. hasteko | 10.<br>a. sortu duela eta<br>b. sortu duelako<br>c. sortzeagatik |
| 11.<br>a. egongo delako<br>b. egongo baita<br>c. egongo da eta | 12.<br>a. ateratzeagatik<br>b. atera zaigu eta<br>c. atera dela eta |

**21** Estreinaldiaren ondoren, prentsan honako berria idatzi dute film laburrari buruz.

Osatu berria, aukera egokia erabiliz.

"Kaiuko bat (1) ___ " ipuinean oinarritutako film laburra aurkeztu dute Maite Sarasola zinema-zuzendariak eta Alberto Altuna zinema-ekoizleak. Lourdes Unzuetaren eta June Mendizabalen ipuinetik abiatu dira Uxue Beitia, Aitor Jinemez eta Imanol Lasa gidoilariak ipuinaren moldaketa egiteko. Zuzendari artistikoa Eider Eibar bera izan da, eta Asier Urbieta musikagileak egin du musika.

Bi urteko lana izan da, eta Maite Sarasola zuzendariak izan du filma zuzentzeko ardura. Haurren giza-eskubideen gaia landu nahi izan dutela adierazi du zinema-zuzendariak, bereziki, haur etorkinena: (2) " ___, beren herrialdean zer (3) ___ bizi diren erakutsi nahi izan dugu, baina, (4) ___, hona etortzen direnean, hemen nola bizi diren eta zer (5) ___ dituzten".

Alberto Altuna ekoizleak ere adierazi du oso gustura gelditu dela (6) ___ , eta eskerrak eman dizkio lan-talde osoari hain profesional onak (7) ___ : "Horrelako proiektu bat aurrera ateratzea ez da erraza. Gure kasuan, (8) ___, oso aurrekontu txikia geneukan; (9) ___, hainbat (10) ___, oso larri ibili gara sortu zaizkigun arazoei aurre egiteko. Baina lanean aritu diren guztiek profesionaltasun handia erakutsi dute; (11) ___, eskerrak eman nahi dizkiet." Prozesuan Elkar argitaletxeak eta Arian ekoiztetxeak ere parte hartu dute. (12) ___ aurrera zinema-aretoetan egongo da ikusgai.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.<br>a. elurretan<br>b. elurratan<br>c. elurtan | 2.<br>a. hasteko<br>b. gainera<br>c. alde batetik | 3.<br>a. balditzan<br>b. baldintzetan<br>c. baldintzatan | 4.<br>a. bestetik<br>b. ondoren<br>c. bukatzeko | 5.<br>a. oztopoak<br>b. oztopoa<br>c. oztopo | 6.<br>a. emaitzekin<br>b. emaitzarekin<br>c. emaitzerekin |
| 7.<br>a. baitira<br>b. direla eta<br>c. izateagatik | 8.<br>a. gainera<br>b. ondoren<br>c. hasteko | 9.<br>a. hori izateagatik<br>b. horiek direla eta<br>c. hori dela eta | 10.<br>a. kasuetan<br>b. kasutan<br>c. kasuan | 11.<br>a. hortaz<br>b. haiek direla eta<br>c. horietaz | 12.<br>a. azaroan 28tik<br>b. azaroaren 28tik<br>d. azaroak 28tik |

# 02 ZAHARRAK BERRI

## A HIZTEGIA

**1** Gizakiok bide ezberdinak erabiltzen ditugu elkarrekin komunikatzeko. Teknologiaren aurrerapenak direla eta, bitartekoak asko ugaritu dira.

Topatu beheko letra-zopan komunikatzeko erabiltzen ditugun baliabide hauen izenak.







| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | A | M | A | R | G | **E** | L | E | T | M | E |
| K | L | E | T | G | S | **-** | X | F | A | X | A |
| O | W | M | A | I | Z | **P** | U | H | I | D | S |
| O | E | P | G | B | L | **O** | G | A | O | S | M |
| B | B | W | H | A | T | **S** | A | P | P | T | S |
| E | C | Y | D | J | K | **T** | N | P | F | E | A |
| C | A | B | I | S | U | **A** | M | S | Z | N | J |
| A | M | E | T | W | I | T | T | E | R | B | M |
| F | A | F | N | J | L | I | T | N | E | U | T |
| E | F | T | E | S | K | U | T | I | T | Z | A |
| R | O | U | U | J | K | L | B | S | E | N | Z |
| P | K | I | T | E | L | E | F | O | N | O | A |







- smsa
- eskutitza
- telegrama
- WhatsApp
- e-posta
- Facebook
- bloga
- telefonoa
- Twitter
- webcama
- Tuenti
- faxa

**2** Baliabide horiek gonbidapenak egiteko, oharrak bidaltzeko, berriak zabaltzeko, iritzia emateko eta abarretarako erabiltzen ditugu.

Irakurri testuak eta esan zertarako erabili dituzten bitarteko horiek.

gonbidatzeko | iritzia emateko | berria zabaltzeko | hitzordua jartzeko | oharra bidaltzeko | hitz egiteko



Amaiak eta Felixek

Atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu gure ezkontzara. Urriaren 11n izango da, eguerdiko ordu batean, Oiartzungo udaletxean.

Bazkaria: Hondarribiko Abarka jatetxean, 14:30ean.

Oh.: Konfirmatzeko, deitu 666 777 999 telefonora.

Oiartzunen, 2013ko ekainaren 30ean.

1. **Gonbidatzeko**

**Nork:** joseba@arian.com
**Nori:** taldea@arian.com
**CC:**
**Gaia:** e-postaren etena

---

Kaixo, guztioi:

Sarean egin beharreko aldaketa batzuk direla eta, gaur, 13:30etik 14:15era, e-posta-zerbitzua ezingo da erabili.

Barkatu eragozpenak.
Joseba

2. ........................................................................................




3. ........................................................................................

**Malen Urkiola** @melenurk 13/12/13
Katalunian independentziari buruzko galdeketa egitea adostu dute.

4. ........................................................................................

**Jon Alkorta** @jalkor 13/12/16
Aurtengo bertsolari txapelketan bertsolariek inoiz baino maila altuagoa erakutsi dute. #BTN13

5. ........................................................................................




6. ........................................................................................

**Malen Urkiola** @malenurk 13/12/17
@jalkor
Igeldo herri izendatzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak

7. ........................................................................................